2. Proiektua.Maiatzean. Lehentasuna emango zaio gizarte gai bat jorratzen duen proiektu bat butzeari. Proiektua talde lanean oinarritzen da, beraz taldean nola lan egin, komunikazioa garatu eta pixkanaka arduradun baten laguntzaz ikasleak aukeratutako proiektua egiteko pausoak ematen dira. Helburua ikasleak bere eguneroko bizizan proiektu bat lantzeko tresnak garatzea da, gizarte gaien sentsibilizazioa sustatzea eta taldean lan egiten ikastea.

**"El objetivo es que este sector de población mayor de 50 años pueda desempeñar un papel activo en la sociedad y tenga capacidad de incidir en la misma"**



Bukatzeko esan 2004-2005 ikasturterako matrikula epea ireki berria dela, izena-emateko eta informazio gehiago:

- GOIEKI-ko bulegoetan:
Ordiziako industrialdeko 29.pabiloia:
Tel: 943 16 15 37

- UGGASA-ko bulegoetan: Euskadi Enparantza 5, Zumarraga.
Tel 943 72 58 29/30. ■

*Uggasa*





# “Hoy en día hay un gran problema de libertad de expresión”

# Jon Plazaola

**Etxean hasi zen txikitan telebistan ikusten zuen edonor imitatzen; lehenengo keinuak, ondoren ahotsa eta biak batuz konturatu zen jendeari momentu onak pasarazten zizkiola. Hala ere, eta artistaren lanaren ezegonkortasuna kontutan hartuz, arte ederretako ikasketak egiten ari da Bilbon, nahiz eta aurten Europa Euskaraz saioko aurkezle bilakatu zenetik alde batera utzita eduki.**

**Aktore, imitatzaile, aurkezle, zerekin geratzen zara?**
Hiruren artean badago erlazioa lana egiterako garaian, hirurak gidoi baten bidez kaleratzen baitira; dena den ezberdintasunak gehiago dira. Nik nahiago ditut monologoak lan guztia nik egiten dudalako, ideia nirea da, testua ere eta nik nahi dudan bezala antzezten dut.

**Zertan oinarritzen zara pertsona bat imitatzeko garaian?**
Batez ere gustatu egin behar zait. Grazia egin behar dit. Lehenengo pertsonak duen keinu berezi batekin hasten zara eta gero ahotsak egiten. Interpretaziorako erraztasuna ere badela esan daiteke. Egia esan ez dut sekula pentsatu. Lehengo imitatu nituenak ETBko futboleko komentaristak izan ziren edo behintzat orain arte gehien imitatu ditudanak.

**Ze pertsona kostatzen zaizu gehien imitatzea? Ez al da nekea tabernatik tabernara ibiltzea?**
Ez dakit egia esan. Nire monologoetan beti daukat tarte bat imitazioak egiteko. Batetik bestera ibiltzen gara eta jendeak behin eta berriro ikusita azkenean ezagutu egiten zaitu; gainera behin tokian egonda, txipa aldatzen da.

**“El principal problema de los jóvenes es el de la vivienda”**

**Aurtengoa aldaketa urtea izan dugu, zure bizitzan ere antzerako zerbait gertatu dela esan daiteke, kasualitate gehiegi ez ote da?**
Ez dakit. Estatu Espainolean aldaketak gertatu zirenean gu Lisboan geunden. Sekulako oihartzuna eduki zuen horrek.

**Aurten ere Europa Euskaraz saioko aurkezlea izan zara, saioa egin aurretik Europa ezagutzen al zenuen?**
Ikasbidaia Mallorcara egin nuen eta Tourra ikustera joan izan naiz, baina

besterik ez; Parisen hiru egun eta bale. Korrika eta presaka, baina hau izan da Europa ezagutzeko nire aukera bakarra.

**Zer moduz joan dira bidaiak?**
Oso ongi, baina di-da ibili gara. Sei egun ematen genituen hiriburu bakoitzean. Egun guztia zoroen moduan genbiltzan. Berlinetik etorri eta hiru egunetara Dublinen geunden, eta horrela. Orain programa lasaiago ikustean gauza gehiagoz gogoratzen naiz bertatik buelta egin genuenean baino.

**Ikusi duzunetik, zerk harritu zaitu gehien?**
Guretik desberdina dela aurkitu dut. Uste dut, zentzu batean behintzat, hobeto bizi garela Europarekiko konparatuta. Gu espontaneoagoak gara, ez gara hain zorrotzak. Irlandan ere nahiko antzerakoak dira; lehenengotik konfiantza ematen dute, baina tabernako kulturan. Kultura ona egia esan!

atzean, horretarako ari naiz ikasten. Bestela ez dut sekula pentsatu, etorri beharrekoa etorri dadila.

**Madrilerako saltoa egingo bazenu, zer eramango zenuke Urretxutik?**
Lagun guztiak maletan sartuta, fijo. Gaztelekuan sartu denak barrura eta listo.

**Gaztea zara, zein da gaur egungo gazteen arazo nagusia?**
Arazoak dezente dira eta nagusienetakoa etxebizitzarena da. Gainera, gazteak begira-puntuan gaude, ezin dugu ezer esan, ezer adierazi, adierazpen askatasun falta dago eta gainera pertsekuzio bat da. Arazoak daudela badakite 'goikoek', baina ez dute erremediorik jartzen.




## "Definiría la telebasura como la cultura del morbo"

**Eta gutxien gustatu zaizuna, baldin eta badago?**
Gutxien gustatu zaidana aipatu dudan zorroztasun hori da. Gatzik gabeak ziren.

**Aurtengo oporrak non?**
Ez dut erabaki oraindik.

**Arte ederrak ikasten ari zara, ze etorkizun ikusten diozu?**
Etorkizuna, tira. Besteen antzera.

**Ze lan artistiko gustatuko litzaizuke zure sinadura edukitzea?**
Iluntasunean dagoen dantzari bat eta behin baino gehiagotan ateratzea dantzari hori; horrelako zerbait, sekuentzia bat bezela alo batekin, ideia horrekin nabil azken aldian.

**Ikasketak noiz amaitzea espero duzu?**
Aurtengo urtea pikutara joan zait. Baina, jarri I. A. baino lehen.

**Nola ikusten duzu zure burua "handia" egiten zarenean?**
Berez, kamara aurrean baino kamara

**Zer da zuretzat telezaborra deritzona?**
Azken aldian sortu den morboaren kultura bezala definituko nuke. Telezaborra ere bada ikustea zein puntu arte distortsionatu daitekeen errealitatea. Albistegietan geroz eta gehiago, eta geroz eta lotsagabeago gainera.

**Bush, Aznar edo Blair?**
Iparragirre

**Irakurtzeko zer nahiago duzu; Biblia, nobela bat edo El Jueves?**
TMO, oso zalea naiz. Gainera, komikietatik monologoetarako ideia ugari atera daitezke. Ah, orain ere monologoekin nabil berriro, jakin nahi duenarentzat.■

*Estitxu Gómez Asensio*



# LA ESTACION:

## Aquellos maravillosos años





**Las fiestas de la estación, son unas fiestas muy queridas y conocidas, y unas fiestas que desde hace más de 70 años han unido a dos pueblos en uno solo barrio. Ahora en cambio, al no haber relevo en la organización, las fiestas pueden morir.**

No se sabe con exactitud cuándo comenzaron a celebrarse en la zona de las Estación las fiestas en honor a San Cristóbal. Los primeros datos del archivo municipal de Urretxu datan del año 1953, pero los vecinos recuerdan que anteriormente también se veneraba a San Cristóbal. En la Estación se reunían todos los chóferes y transportistas de Urretxu y Zumarraga debido a que ahí se situaban las estaciones de Urola, Vascongados y Renfe y las paradas de los autobuses y taxis. De ahí que se comenzara a celebrar la fiesta del patrón de los transportistas.

Los vecinos de este barrio recuerdan que antes de la guerra, allá por el año 35, ya se realizaban algunos festejos. En aquella época la fiesta se limitaba a una carrera popular entre los niños y un baile. Pero a medida que los años pasaban la fiesta fue cogiendo cada vez más fuerza y los festejos contaban con mayor participación. No hay que olvidar además, que las fiestas coincidían con la celebración de los San Fermines de Pamplona, y que mucha gente que se dirigía hacia la capital navarra hacía su transbordo aquí. Muchos de ellos aprovechaban su visitaba para mezclarse entre los locales y disfrutar del buen ambiente del barrio del Dólar.

Durante la década de los 50 y 60 la Estación fue una zona muy importante. Además de todos los transportes, también se concentraban aquí los bancos y los dos hoteles que han escrito parte de la historia de Urretxu y Zumarraga. El Hotel Urola y el Hotel Paraíso. Por ello, se comenzó a llamar a la zona como el barrio del Dólar.

La foto superior es del 12 de Julio de 1981. De izquierda a derecha: Mikel Maraña, Josetxo Badiola, Jose Luis Garcia, Kantxa Maniega, Txomin Moreno, Txema Sedeño, Agustin Montaña, Toni Ran, Pedro Lizarazu, Moises Inza, Justo Santamaria, Imanol Amiundarain, Jesus Maniega, Luis Calzada y Pedro Iglesia.

## Baile con entrada

Todos los meses de julio la Estación se convertía en un hervidero de gente. Niños como mayores disfrutaban de la fiesta. Solía haber carrera de cintas o de lentitud para los más pequeños y baile para los mayores. Durante las fiestas no solía haber baile en el Avenida y la orquesta ofrecía su recital en el recinto preparado para tal efecto en la Estación de Renfe.

Y es que, alrededor de la década de los 60, el baile se llevaba a cabo en una zona cerrada que pertenecía a Renfe. Todos los que querían entrar, excepto las mujeres, debían pagar una entrada y entonces se les colocaba una pegatina en la solapa. Muchos intentaban pasar sin aportar ninguna peseta, y luego, dentro, tenían que vérselas con el interventor.

## Carrera de burros

Pero si algo ha hecho famoso a las fiestas de la Estación, eso ha sido la carrera de burros. Se puede decir que es el acto más significativo de los tres días del jolgorio, y su protagonismo es tal que incluso es la imagen de los banderines que adornan las calles del barrio.

La carrera de burros se celebra desde hace aproximadamente 40 años. Su procedencia es una incógnita, pero parece ser que todo comenzó debido a una apuesta entre los fruteros de la zona. Por aquella época, había en el barrio tres fruteros, y los tres tenían su burro. Al parecer, tras una apuesta, realizaron una carrera que se ha conservado durante años. La carrera fue adquiriendo tanta importancia que hubo un año incluso en el que participaron 22 burros.

## Organización desinteresada

La Estación ha sido testigo de muchas actividades. En todo este tiempo ha habido conciertos, deporte rural, carreras de ciclismo, de karts e incluso de camareros, comida popular, teatro y cómo no, buen ambiente. Un ambiente que se ha conseguido gracias a la organización desinteresada de la comisión de fiestas del barrio y de los vecinos. Para estos últimos, las fiestas del barrio, como ellos las conocen, son unos días muy especiales e intentan aportar su granito de arena dando su voluntad en el sobre que para ello pone la organización. La predisposición es tal que hay casos en el que la gente que no está en casa avisa a la organización para que recojan el sobre en otro momento.

Pero tras todos estos años, casi no queda gente para trabajar en la comisión de fiestas. Hoy en día, seis chicas del barrio, Itziar, Rebeka, Leire, Nerea Olatz y Ane son las encargadas de diseñar el programa. Su trabajo comienza en abril, cuando empiezan a reunirse y a idear el programa de fiestas. Una tarea que les resulta cada vez más difícil, ya que a pesar de que durante los tres días de fiestas cuentan con la ayuda de otras personas, en la mayoría de la ocasiones se sienten desbordadas. A pesar de sus ganas que de que las fiestas continúen, cada vez están más desanimadas y este año han estado a punto de no organizarlas. Al final, empujados por los vecinos, han cogido de nuevo las riendas de las fiestas, pero ven necesario un relevo porque si no, muy pronto la Estación perderá sus fiestas. ■

*Maider Izagirre*

## GELTOKIETAKO JAIAK

70 urte baino gehiago dituzte San Cristobal santuaren omenez Geltokietan ospatzen diren jaiek. Urte horietan guztietan denetik izan da bi herriak auzo berean elkartzen dituen festetan: bazkaria, antzerkia, haurrentzako jolasak, herri kirolak, txirrindulari, kart eta zerbitzari lasterketak eta nola ez, asto lasterketa. Izan ere, horrek egin ditu ezagun jaiak. Giro ona beti izan da nagusi Geltokian, eta jendeak gustora hartu izan ditu jaiak. Orain, ordea, gero eta pertsona gutxiago daude antolakuntza taldean, eta inor berririk sartu ezean, festak hil egingo dira.



Gaur egungo antolatzaileak

# II Concentración del Club de Amigos del SEAT 850 Berlina en el País Vasco para clásicos populares



**El fin de semana del 26 y 27 de Junio nos reunimos en Urretxu algunos socios del “club de amigos del SEAT 850 berlina”, junto con otros aficionados a los vehículos clásicos. El plan de la concentración era sencillo: reunirse en la plaza Gernikako Arbola de Urretxu el sábado por la mañana, desde donde saldríamos hacia el alto de Mandubia para comer y de allí bajar hasta el Museo del Ferrocarril de Azpeitia**



El domingo quedamos en Urretxu y nos desplazamos hasta Mirandaola para ver en marcha la antigua ferrería. Tras ver la ferrería volvimos a Urretxu para celebrar la comida de despedida en Santa Bárbara.

Al final reunimos varios ejemplares de los siguientes modelos: Seat 850 Especial, Seat 850 D, Seat 850 Sport Coupe, Seat 124 Sport 1.800, Seat 124 D, Seat 132 1.800, Siata Formichetta, Renault 8. que venían de sitios tan distantes como Barcelona, Valladolid y León, además de otros no tan lejanos, como Bizkaia, Nafarroa y Cantabria.

Aunque el número de vehículos que se juntaron no fue excesivo, sí que logramos un muy buen ambiente, en parte debido a la atención que desde



el departamento de cultura del Ayuntamiento de Urretxu nos dispensaron. Y tras darnos una explicación sobre la historia del pueblo de Urretxu, su casco histórico, y enseñarnos la iglesia de San Martín de Tours, nos hicieron entrega de unos recuerdos por parte del consistorio. La verdad es que todos los participantes estuvieron encantados con la atención y, todo hay que decirlo, impresionados con la estructura de madera de la iglesia.

## ¿Por qué en Urretxu?

Actualmente soy el delegado del club en Euskal Herria. Nacido en Barakaldo, he vivido allí hasta que mi trabajo como profesor de secundaria me trajo a Gipuzkoa. Estos dos últimos cursos he vivido en Urretxu y me ha rondado por la cabeza organizar una concentración del club centrada en este pueblo. Todo ha sido muy fácil: les comuniqué la idea al ayuntamiento y se pusieron en contacto conmigo desde la casa de cultura; a partir de entonces me han prestado toda la colaboración necesaria y en poco tiempo teníamos en marcha la concentración. Ahora sólo queda ir buscando la fecha más adecuada para el 2.005 y empezar a avisar a los aficionados para que no hagan otros planes esos días.

## El SEAT 850: un clásico algo olvidado

Cuando empezó a difundirse la afición por los clásicos fuera de los círculos elitistas que podían permitirse tener un "deportivo" inglés o italiano o un "haiga" americano, tal vez el 850 era aún un poco joven para que fuera tenido en cuenta dentro de esta incipiente "movida". Otros coches algo más antiguos o con pretensiones más deportivas entraban sin complejos en el mundillo de los clásicos, mientras que aún quedaban en las carreteras muchos 850 como coche de uso eminentemente urbano, generalmente no muy bien conservados y menos valorados, lo que de alguna manera, desprestigiaba el modelo como clásico de pleno derecho.

Durante unos años, los "ochoymedios" fueron prensados sin piedad, algunos víctimas del plan"renove" y, posteriormente del "prever", siendo ya realmente raros los supervivientes. Mientras tanto, un grupo de entusiastas tuvo la idea de crear un club dedicado a estos vehículos. Como ya existía un club dedicado a los modelos Coupe, Sport Coupe y Spider (Las versiones deportivas del 850, de las cuáles, la última era un coqueto descapotable), donde no se admitían a modelos, digamos "vulgares", se le puso la coletilla de "Berlina". Así surgió el "Club de Amigos del SEAT 850 Berlina", aunque en este club se admiten a todo tipo de modelos 850, incluidos los 133, sus hermanos pequeños y las furgonetas Siata, el monovolumen del 850, que algunos recordarán porque las usaba... la Policía Militar. Pues en gran medida gracias la labor del club, el 850 es hoy día admitido de modo indiscutible en el mundillo de los clásicos.

El club cuenta en la actualidad con más de 60 socios repartidos por toda la geografía de España, de los que unos pocos estamos en el Euskal Herria. Espero que la cita de Urretxu se convierta en un referente para todos los aficionados a los "ocho y medios" y para los aficionados a los clásicos en general, así que ya estamos trabajando para la concentración del año que viene. Los que han venido este año han prometido volver y espero que los del año que viene no falten en el 2006.

## ¿Cómo contactar con el club?

El club dispone de una página web: www.club850berlina.org además se puede contactar conmigo en el teléfono 656731468 (Tito). ■

*Luis Javier Gonzalez*

## "SEAT 850 BERLINA"ren LAGUNEN KLUBEKO II. KONZENTRAZIOA

Ekainaren 26 eta 27an "SEAT 850 BERLINA"REN LAGUNEN KLUBEKO II. KONZENTRAZIOA EUSKALERRIAN izan zen Urretxun. Larunbatean elkartu eta Urretxuko historia eta hirigune historikoa ezagutu eta gero, Mandubira eta Azpeitira joan ziren. Barcelona, Valladolid, Leon, Bizkaia, Nafarroa eta Kantabriatik etorri ziren partaideak honako modelo hauekin: Seat 850 Especial, Seat 850 D, Seat 850 Sport Coupe, Seat 124 Sport 1.800, Seat 124 D, Seat 132 1.800, Siata Formichetta, Renault 8. Klubak 60 kide ditu. Aurtengo esperientzia positiboa kontutan harturik, antolatzaile lanetan ibili den Luis Javier Gonzalezen asmoa da datorren urtean ere beste konzentrazio bat egitea Urretxun.



# Jose Andres Txintxurreta

## Sakristaua eta Bake Epailea

**Zapata saltzaile eta konpontzaileaz gain, sakristau eta bake epaile lanetan urte asko daramatza, Jose Andres Txintxurretak. Bere aita gaixorik zegoela hasi zen sakristau lanetan eta ordutik hona gauzak asko aldatu dira. Besteak beste, aldaketa hauei buruz galdetu diogu elkarrizketa honetan.**



**Noiz eta nola hasi zinen sakristau lanetan?**

Ez dakit zehazki zenbat urte daramadan sakristau lanetan. Aita gaixo zegoela hasi nintzen lana ikasten eta bera hil zenean ni hasi nintzen, orain arte.

**Sakristau lana zertan oinarritzen da?**

Elizako kanpaiak jotzea, garai batean etxez etxe joaten nintzen elizako erreziboak kobratzea eta hileta guztietan bertan egon. Garai batean, kotxe funebrea erabiltzen hasi arte, etxeetara joaten nintzen estandartearekin.

**Urte horietan guztietan, aldaketak eman dira zure lanean, ezta?**

Bai, horrela da. Lan honetan hasi nintzenean goizeko 6,30etan eta 8etako mezetako kanpaitxoak jotzen nituen. Eskailerek eta garai hartako ordulariek makina bat buruko min ekarri didate. Urteak pasa ahala gauzak asko aldatu dira, kanpaiak botoi baten bidez jotzen nituen eta lehenago sokatik tiraka ibili behar izaten nuen. Gero, 7,30etan, 7,45etan eta 8etan jotzen nituen kanpaiak eta azkenaldi honetan, meza gutxiago daudenez, 9etan.



Jose Andres, don Pedro Salaberri apaizarekin

**Baina lanik neketsuena erreziboak kobratzea zen zure ustez?**

Hasiera batean, 1958an hilero joan behar izaten nuen etxez etxe. Ondoren, hiru hilabetero, sei hilabetero eta azkenean urtero, 1991. urtera arte. Urte horretan KUTXAren bitartez ordaintzen ziren. Egia esan, herriko jende eta familia guztiak ezagutzen nituen, zein etxebizitzetan bizi ziren...Inoiz ez nuen izan inolako arazorik jendearekin.

**Zapatak saldu, konpontzeaz eta sakristauaz gain, bake epailea ere bazara?**

Bai, ezkontza zibilak udaletxean ospatzen hasi nintzen duela hogei bat urte.

**Aldaketarik somatu al duzu hasierako ezkontzetatik azkenekoetara?**

Ez, antzeko ezkontzak izan dira denak, eta ezkontza kopuruan ere antzera.

**Zein zen lanik okerrena?**

Beno, hasieran, goizeko seietan kanpaiak jotzea, hori zen lanik okerrena. Bai sakristau eta bake epaitegiko lanak ere, biak gustoko izan ditut.

**Urteko sasoi batzuetan lan gehiago izango zenuen, Aste Santuan adibidez?**

Bai, Aste Santuan beti izaten genuen lan gehiago, prozesioak antolatzen zirenean, santuak ipini behar izaten nituen.

**Gaur egungo gazteek horrelako lanik egiteko prest egongo ginatekeela uste duzu?**

Ez dut uste, bistan da jendeak badakiela ze lan mota den hau, hileta guztietan bertan egon beharra kanpaiak jotzeko, bezperan ere. Lan sakrifikatua da eta soldata ez da oso handia.

**Anekdotarik gogoratzen al duzu?**

Lehen aipatu dudan bezala, garai batean, goizeko 7,30etan jotzen zuen kanpaiak. Baina gero apaizak orduak aldatu zituen eta kanpaiek ez zuten ordu horretan jotzen. Iparragirre kaleko herritar batek kexuka esan zidan iratzargailua erosi beharko zuela. Dirudienez, 7,30etako kanpaiekin esnatzen zen hura! ■

*Kizkitza Ugarteburu*

## JOSE ANDRES TXINTXURRETA

Jose Andres Txintxurreta lleva muchos años ejerciendo de sacristán y juez de paz. En todos estos años las cosas han cambiado mucho. En un principio tocaba las campanas tirándo de la cuerda hasta que pudo hacerlo mediante un botón. Andrés conocía bien a todas las familias urretxuarras, ya que cobraba la cuota de la parroquia San Martin de Tours casa por casa, hasta el año 1991. El recuerda que cuando dejó de tocar el angelus a las 7:30 de la mañana, algún urretxuarra se quejó, diciendole que tenía que comprar un despertador.

# Azkenean oporrak!

**Dagoeneko iritsi zaigu eguraldi ona.
Urte osoko ohikeriatik irteteko parada. Denbora librez gozatzeko aukera.
Ordurik gabeko eguna. Bai, azkenean oporrak!**

Egunak luzatu egiten dira, edo laburtu oporrak igarotzeko egiten dugun aukeraketaren modura. Gainera, normalean aukeraketa hori gure poltsikoan dugun diruaren araberakoa izan ohi da, edota gure jai egunak aprobetxatzeko dugun asmoari lotutakoa.

Oraindik ere asko eta asko dira aiton amonen herrira joaten direnak; urte osoan zehar ikusten ez dituzun lagunekin elkartu, neska eta mutil lagun ohiak agurtu,..

Dena den Euskal Herrikoak negu gogor bat igaro ostean eguzki bila joatea nahiago izaten dugu, hortaz, hego aldera joanez gero hagitz erraza izaten da euskara edonon entzutea; “aita, helatua nahi dut, aita pixa, ama goazen uretara,...” Bestalde, ugari izaten dira baita ere lagun arteko koadrilak Salou, Torremolinos eta antzekoetan topatzea, baina hori bai, hauek normalean ez dira oso beltzaranak etortzen, zergatik izango ote?

## Oporrak igarotzeko aukera ezberdinak

Baina geroz eta gehiago dira oraindik ere penintsulatik ateratzen direnak eta horren errege dugu internet.

Bai, jakin badakit internet bidez nabigatzeak ez duela bidaiatzea esan nahi, baina gozatu nahiko genukeen parajearen informazioa ematen digu, argazki eta guzti.

Gauzak horrela, jakin badakit aurten Urretxu-Zumarragako zenbait lagun oporretan egin behar dutena, baita beste urte batzuetan egin dutena ere!

Esaterako, erreportai hau irakurtzen zaudetela herriko hiru gazte Perun egongo dira, bai, hala da mendirako ekipoa erreserbatu eta listo. Gazte hauek euren oporrak azaroan erabaki zituzten, mendizale petopetoak dira eta hori kontutan hartuz internet bidez hegazkina hartu eta lehenengo egunerako gaua errespetatu dute. Gainontzeko egunak? Hori bueltan galdetu beharko diegu. Hala ere herritar hauek lehenago ere egonak dira Perun, baita Limako ospitalean ere.





Horietako batek mendian zebiltzala izozketa batzuk somatzen hasi zen bere eskuetako zenbait behatzetan hortaz, gauzak hartu eta ospitalean egon zen. Hori bai, bera gaixoa izanda bere lagunak berarekin egiten zuten lo parrandatik etorri ostean “en el Hotel Hospital La Paz”. Bi gau eman zituzten bertan sosik ere gastatu gabe. Lastima, azkenean gaixoa hegazkinez ekarri baitzuten etxera bueltan eta eurak lo egiteko dirua gastatu behar. Hala ere esperientzia horrek ez dizkie berriz ere bueltatzeko gogoak kendu.

Aldiz, oso mendizaleak ez bagara, baina beste zenbait herri eta kultura ezagutzea atsegin badugu herriko beste lagun talde batekin joan gaitezke, kasu honetan, Europa ezagutzera.

Kotxeari errebisioa pasatu, janaria kiloka erosi, motxilan oinarrizkoena sartu eta ‘Trotamundos’ liburua eskuan dugula abiatzeko prest gaude; Frantzia, Italia, Danimarka, Fiordoak, etab.

Kotxean gure kabuz bidaiatzean nahi adina aldiz eta nahi adina tokitan geratu gaitezke. Aldiz, jakin badakigu, Europako zenbait tokitan kotxea ezin dela denbora luzez bakarrik utzi. Ez dago zertan larritu behar, baina bada ez bada ere gauza gehiegi bistan ez uztea komeni da. Lagun talde honek oporrak azken egunetan antolatzen ditu: ezagutu nahiko luketena mapa batean finkatu eta gero inprobisazioari uzten diote tartetxoa. Gainera, horrela horren turistikoak ez diren gauzak eta txoko ederrak ezagutzen direla aitortu digute.

Oporretarako beste aukera bat kooperante moduan joatearena da. Baina kasu honetan lanerako gogoa eraman behar da eta joan aurretik geure burua prestatu beharra dago. Polita da gehien behar duenari laguntzea, baina gogorra ere bada.

## Urretxuar Ibiltarien Flasha

Dena den egiten dugun aukera egiten dugula, eguneroko erritmoarekin apurtzea da kontua. Gainera, aurten kanpora irteteko aukera ez badugu hortxe izango dugu beti ere Urretxuar Ibiltarien Flasha diapositiba emanaldien bidez mundua ezagutzeko parada.■

*Estitxu Gómez Asensio*

## DIVERSAS OPCIONES PARA PASAR NUESTRAS VACACIONES

Llegados a esta época del año, quien más quien menos tiene unos días de vacaciones. Bien, Kaixo ha querido conocer diferentes opciones para pasar nuestra época estival: podemos irnos a Perú, a subir a 8.000 metros, podemos recorrernos Europa, o parte, en coche con los amigos, podemos irnos de cooperantes a países en vías de desarrollo. Pero si diera la casualidad de que no pudiéramos irnos, a la vuelta siempre podremos recorrer el mundo por medio de las diapositivas de Urretxuar Ibiltarien Flasha.








# Musika Taldeen egoera Urretxun




**Herrian hainbat eta hainbat musika zaletu dago, gazte zaletu asko tartean, beren kabuz talde bat osatzea erabaki dutenak; batzuk hasiberriak, beste batzuk urte dexente daramatenak. Hauetako batzuekin ibili gara hizketan, eta musikaren alde onak, txarrak, zein egoera bizi duten...azaldu digute, honela gure kezkak pixkak argituz, eta herriari haien berri emanez, bide batez.**

Hauen artean duela hilabete gutxi sortutako asoziazio bat topa dezakegu, MTM izenekoa (musika talde mugimendua), talde ugariz osatua dagoena; Middle finger, Meatxu, Fade away, RAPtados, Mlabi, Zain, No Crew, eta beste batzuk, oraindik izenik gabe sartu direnak.

Sortutako asoziazioaren bitartez zera bilatzen dute: alde batetik bi udalen laguntza haien taldeak aurrera ateratzeko, eta bestetik lokal egokituak izatea haien entsaioak egin ahal izateko. Batzuk bi herriotako hainbat garajetan dabiltza nola edo hala, horrek guztiak dakarren arazo multzoarekin, eta beste batzuk non entsaiatu ere ez dute.

Hilabetero dirua jartzen dute, eta horrekin kartelak egiteko aukera dute, edo beste zerbait antolatzeko...; bestalde, jaialdi antzeko bat prestatzeko asmotan dabiltza, eta ateratzen dutenarekin beraien taldeak aurrera eraman, udalen laguntza jaso bitartean... Urretxuko Gaztelekuan biltzen dira ostiralero arratsaldeko seiak eta erdietan, interesa duenak bertara joatea besterik ez du!

Bestalde, Spezial Guest taldea hortxe dugu, herrian musika talde aski ezaguna. Haren partaideetako batekin, Txarlirekin, egon gara, baita Painful taldeko Borjarekin.

Spezial Guest-ek 2. diskoa atera berri du ekainaren 5ean egindako aurkezpen kontzertuan, Urretxuko KUn. Bere ibilbidea ez da batere makala, ez, adibidez, iazko maiatzean Festimaden jotzea izan zuten epaimahaiaren sari berezia jaso ondoren, KMtan egon dira, Bartzelonatik, Madril, Galiziatik ere ibiliak dira.

"Musika talde bat osatzea oso garesti ateratzen da, asko nekatzen du, adibidez gure taldeko gitarrak utzi egiten du taldea, arrazoi beragatik, oso nekagarria delako... Talde bakoitzak bere poltsikotik atera beharra dauka bere musikari jarraipena emateko dirua. Dirua lortzeko beste bide bat kontzertuak dira, baina gehienetan hauetan ateratakoa bidaia ordaintzeko erabiltzen dugu..." dio Txarlik.




Musika talde bat osatzeak bere alde onak eta ez hain onak dituela argi dute:"Gastuak handiak dira, diru asko behar da, eta ez dugu laguntzarik jasotzen. Nahiz eta lokal libreak egon, beti sortzen dira arazoak ...;.beste zenbait herritan, adibidez, udalak ordaintzen ditu lokaleko gastuak"

Borja, Painful musika taldeko partaidea dugu, The Charles Funk Project taldean ere aritzen da...; horrez gain, herriko hainbat talderen maketa grabaketak egiten ditu; Black Diamond, Zuhaitzaren Soinua, Jon Iturbe..., grabaketa gehienak taldeen garaje edo lokaletan egiten dituzte, eta beste batzutan Pagoetako Antzokira jotzen dute. Madayako lokaletan zailtasunak izaten dituzte grabatzeko, txikiak dira...

Bere taldearekin kanpora maiz ateratzen da kontzertuak ematera:
"Kanpora jotzera joaten garenean bertan ateratako dirua sarreretatik lortu dugu edo beste batzutan beste talde batzuekin banatu behar izan dugu..."

Orain dela hilabete gutxi Gaztemaniak antolatutako kontzertu batean jotzen aritu ziren Oñatin, eta Herri Irratian elkarrizketatuak izateko aukera izan zuten.Orain, pasa den ekainean Santa Cruz de Campezon ibili dira, eta urrian Tarragonara joateko asmoa dute, Montblanc ingurura.

Duela urte batzuetatik hona musikaren bilakaera zein izan den galdetzean ez dute aldaketa handiegirik somatu; " Hemen musika ez da gehiegi aldatu, lehen beste talde batzuetan jotzen zuen jendea orain beste talde batera joan da, edo beste berri bat sortu du. Hemen bakoitzak bere rollora doa".

Ikusten duzuenez, abestiak dioen bezala " Euskadin rock and roll-ak ez du dirurik ematen, inon baino alaiagoa izanen da..." laburbildu genezake hemen agertutakoa, baina tira, herrian musika mugimendua somatzen da, eta galdu behar den azkena gustatzen zaigun horretan aritzeko ilusioa da, kasu honetan musikan, gazteak garen heinean...

Urretxuko Udalak egoera aztertzen ari dela adierazi digu, gazte talde musikariek bizi dutenari irtenbide egoki bat eman asmoz, ea egia den !

*Ana Isabel Iturbe*

# MTM
## musika talde mugimendua

Se formó hace unos meses con el fin de buscar soluciones y apoyo por parte de los ayuntamientos de Zumarraga y Urretxu.

"Lo mejor es juntarnos y pedir cosas todos los grupos a la vez para conseguir algo"
Algunos ensayan en locales( garajes de Madaya) y Argixao, a la vez que otros no tienen donde ensayar.

"Pedimos un local adaptado para todos los grupos, donde no molestemos a nadie y podamos ensayar, por ahora hemos hablado con el Ayuntamiento pero todavía no hay nada concreto"

Ponen dinero de su bolsillo todos los meses y con ello se organizan para hacer carteles, también tienen intención de montar un festival...
" Hay mucho grupo pero poco apoyo, mucha gente cansada de moverse se sale de los grupos..."

Los viernes suelen juntarse en el GazteleKU sobre las seis y media de la tarde; " al que le interese o quiera meterse en la asociación que se pase por aquí..." nos dicen.



KaixoGazte!

# Gaztetxoen Lokalak

**Ez dakit azkenaldiko moda den, baina egia esan gaztetxo asko dabil "garito" batean edo bestean sartuta edo sartzeko asmoz. Zergatik lokal bat? Zertarako lokal bat? Kalean alternatibarik ez? Zer diote gurasoek? Galdera sorta eder baten ondoren, haien usteak, nahiak eta zergatiak irakurtzeko aukera duzue.**

**Hamaika talderen artean 3 lokaletako gaztetxoekin aritu gara hizketan:**

**"BAR DE MOE" 14-16 urte bitarteko mutikoek alokatuta duten lokaltxoa dugu. Ia egunero elkartzen dira bertan, eskolak bukatu eta gero. Bertan telebista ikusi, musika entzun, lagunekin elkartzen dira...**

**Zergaitik lokal bat?**
BM - "Ez daukagu herrian beste lekurik, ez daukagu non elkartu lagunekin, eta hau aukera ona da; gainera lasai egoteko aukera duzu, etxean bezela, baina lagunekin, eta geuk nahi dugun modura"

Alokairua ordaintzen dute, eta bakoitzak bere pagatik ordaintzen du. Daukaten baldintzetako bat lokala ondo zaintzearena da.

**Bizilagunen kexarik?**
BM - "Musikarengatik kexatzen dira..."

Asteburuetan tabernaz taberna irteten dute, ez dira denbora osoan lokalean egoten.

**Zer diote gurasoek?**
BM - "Ondo ikusten dute. Drogak eta alkohola dela eta, kezkaturik agertzen dira. Baina, nahiz kalean nahiz lokalean egon, edan edo erre berdin- berdin egin dezakezu, eta erretzen ez duenak ez du ez kalean ez lokalean egingo"

**Zuen alde zerbait:**
BM - "Kanpotik ikusten gaituen jendeari zera esango genioke: gazte izateagatik errua ez dela beti gurea, adibidez lokal batean egoteagatik..."



"BAR DE MOE" Taldekoak

**Urretxuko Kultur Etxearen ondoan badago 11 neska gaztek osatutako taldea; asteburutan elkartzen dira gehienetan, astegunetan gutxi. Garazi, Goreti, Mirari eta Lirainekin egon gara hizketan.**



“12XSP” Taldekoak

### Zergaitik lokal bat?

"Neguan, adibidez, ez daukagu non egon, ez daukagu alternatiba gehiegi. Alde horretatik Udalari mugitzea eskatuko genioke..."

Hilabetero, pagako diru garrantzitsu bat erabiltzen dute alokairua ordaintzeko. Lokala agentzia inmobiliario baten bitartez lortu zuten, eta oraingoz jabearekin ez dute arazorik izan. Jarritako baldintzetako bat animaliarik ez sartzea da, beste gutxi batzuen artean.

### Bizilagunen kexarik?

"Ez, ez dugu kexarik! Hala ere kanpoan eman dezakegun irudiak kezkatzen gaitu, jendeak pentsatzen duena. Barruan edo kalean berdin-berdin egon zaitezke..."

### Zer diote gurasoek?

“Betiko kezka; drogak, alkohola, ..., baina hala ere lokala hartzearen erabakiarekin ados egon dira gurekin"

Asteburuetan gutxi irteten dira tabernetara, lokalean gustura egoten omen dira. Beste lokaletara ere joaten dira, eta elkar ezagutzen dute.

### Gustura dauden arren gastu handia dela pentsatzen dute...

"Udalari lokalak topatzerako orduan erraztasunak ematea eskatuko genioke, edo bestela gazteontzat beste alternatiba batzuk bilatzea"

..........................

**12XSP beste talde bat da, 15-16 urte bitarteko 12 neskez osatua dagoena. Hauek garaje batean dute lokala. Astean zehar elkartzen dira, eta telebista ikusteaz gain, lagunekin hitz egiteko aukera dute, pelikulak ikusi, ... Lokala beraien kabuz lortu zuten; "Jendeak galdetzen zigun "zertarako" nahi genuen..., gazte jendeak " arazoak" ekartzen ditugu, nonbait."**

### Zertarako lokal bat?

12XSP - "Elkartzeko leku bat da, herrian dugun alternatibak ikusita; tabernak, zinema...Gau Giroan eta horrelakoak baino, hau nahiago dugu."

Agentzia inmobiliario bitartez lortutako lokalak txikiak eta garestiak iruditzen zaizkie, beraiek azarotik dabiltza konponketak egiten, argia jartzen, ..., nahiz eta lagun baten bitartez lortutako "garitoa" izan, alokairurik ordaindu ez arren, gastu handia da. Hori bai, gurasoen laguntzarekin.

### Zer diote gurasoek?

12XSP - "Hasieran beldurra zuten lokal barruan zer egiten genuen eta horrelakoak, lehenengo egunean sartzen utzi genien, eta laguntzen ibiltzeaz gain lokalaren " inaugurazioan" egon ziren. Hala ere, alkohola dela eta, arduratuta daude, gure adineko jendeak edateko ohitura du, erretzeko,..., horrez gain, tabernetako prezioa ere oso garestia suertatzen da guretzat"

### Lokal baten abantailak:

12XSP - "Neguan hotza dagoenean badaukagu non egon, lagunekin elkartzeko lekua da, denbora asko pasatzen dugu elkarrekin...momentuz gustura gaude, gero ikusiko da, kanpora irtengo gara ikastera, bakoitzak berea egingo du...baina momentuz ondo"

### Desabantailak...

12XSP - "Ez gara jendearekin hainbeste erlazionatzen, hala ere badago jendea ezagutzeko aukera, beste lokaletara joaten gara, elkar ezagutzen dugu..."

Kexu dira herrian dagoen alternatiba eskasagatik; " Alde batetik gure eskaerei pixka bat erantzuteko eskatzen diogu Udalari, eta bestetik, jendearengandik konfidantza jasotzea ere bai, lokala izan edo ez izan, gazteak izaten jarraitzen dugulako, gauzak berdin-berdin egin daitezke lokal batean edo kalean, edo tabernetan..."

## Eta gurasoek, zer diote gurasoek?

Amatxo batzuekin hizketan egon ondoren ikusi hemen haiek emandako iritzi batzuk:

"Hasieran jarrera ezkorra duzu, kezkaz beteta; drogak, alkohola...Etxean txiki ikusten dituzu baina konturatzen zara konfidantza izan behar duzula beraiengan."

"Adina kontuan hartu beharra daukazu, denak izan gara gazteak. Garaiak asko aldatu dira eta ondo pasatzeko beste modu batzuk izan ditugu. Era desberdinak dira".

"Ez dugu gaizki ikusten bertan elkartzea; ondo pasatzeko, lanak egiteko...hala ere, batzutan ez digu grazia gehiegirik egiten. Galderez betetzen dizkiegu buruak..."

" Asko hitz egiten dugu beraiekin; zer egiten duten, ze musika mota entzuten duten, ...eta noizean behin bisitatxoak egiten dizkiegu. Pozik daudela konturatzen gara, eta konfidantza da eman diezaiekegun garrantzitsuena". ■

*Ana Isabel Iturbe*



# Santa Anastasia jaiak

Irailaren 10etik 20ra bitartean

www.urretxu.net

SOLI DEO HONOR ET GLORIA

Urretxuko Udala